

**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN
48/2023 TXOSTENA**

Gaia: Bermeoko Urigintz-Barriztatze Alkartea, S.A. desegitearen aukera aztertzea

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.a eta d.1 artikulua

1. Aurrekariak

Lehenengoa.- 1990eko maiatzaren 31n Bermeoko Osoko Bilkurak Bermeoko Urigintz-Barriztatze Alkartea, S.A.ren (Beruala, S.A.ren) estatutuak onartu zituen. Eta 1990eko azaroaren 24ko Osoko Bilkurak Beruala S.A.ko administrazio kontseilua eratu eta kontseilariak izendatu zituen.

Bigarrena.- Bermeoko Urigintz-Barriztatze Alkartea, S.A.ren (Berualaren) estatutuen 3. artikulua arabera, sozietatearen **helburuak** hauek izango dira:

a) *Eusko Jaurlaritzako abenduaren 5eko 278/1983 Dekretuan edo beste edozein legetan azaltzen dan urigintza arloko birgaitze jarduna burutzea.*

b) *Plangintza orokorra kudeatu eta burutzea, indarreko legediak, eta, batez be, 1169/78 Errege Dekretuak esandakoa kontuan hartuta.*

2. *Funtsean, jardute honeek izango dauz soziedadeak:*

a) *Birgaitze plan bereziak egitea.*

b) *Urigintzazko Planak eta Proiektuak egitea, birgaitzekoak be bai.*

c) *Eraikite moeta guztietako birgaitze proiektuak egitea.*

d) *Birgaitze jarduteak diran obrak burutzea eta plan bereziak egitea suposatzen dauan beste edozein lan burutzea.*

e) *Azterlan sozio-urigintzazkoak burutzea eta euren jarraipena egitea.*

f) *Lurzoruaren programazinoa sustatzea eta antolatzea, Planeamenduak agindutakoa beteteko.*

g) *Desjabetze espedienteak egitean eta kudeatzean laguntza emotea.*



- h) Soziedadeak behar dauan beste edozein agiri tekniko-juridiko egitea.
- i) 278/83 Dekretuan zein beste edozein xedapenetan ezarritako beste edozein jardun, orokorrean administrazio-kontzesiorik emotea beharrezkoa ez danean, baita, udalerraren planeamendu nagusi barrukoak eta bereziki eraikuntzearen sustapenekoak.

Hirugarrena.- Sozietatearen helburuak ez daude eguneratuta gaur egun Beruala, S.Ak betetzen dituen funtzioetara, ezta ematen dituen zerbitzuetara. Hauek dira, Beruala S.A.k hartu dituen erabakien erlazioa 2017tik aurrera:

Administrazio kontseiluaren erabakiak:

2017.urtea

- 2017. urterako aurrekontuen onarpena.

2018.urtea

- 2018.urterako aurrekontuak onartu (mahai gainean).

2019.urtea

- VEC ikastaroa Berualako langileek egiteko, udalarekin hitzarmena sinatzea onartzea.
- Berualak egunkarietan argitaratu beharreko iragarkien kudeaketa eta iragarpenaren zerbitzu kontratua bideratzeko kooperazio sistemaren hitzarmena onartzea Bermeoko Udalarekin.
- Berualaren mezularitza eta paketeria banaketa zerbitzuaren kontratazioa bideratzeko kooperazio sistemaren hitzarmena onartzea Bermeoko Udalarekin.
- Jose Mari Larrozea Etxebarria jauna kontseilari (bokal) izendatzea.
- 2018. urteko kontuak onartzea.
- Gazteen emantzipaziorako diru-laguntzak.
- Administrazio Kontseiluko barne karguen banaketa.
- Kontseilari delegatua izendatzea.
- Administrazio elektronikoan aritzeko elkartearen ordezkari ahalmentzea.



- 2018. urteko kontuen formulazioa onartzea, Batzar Nagusiari aurkezteko.
- 2020.urteko aurrekontuak onartzea.

2020. Urtea

- 2019 ekitaldiko kontuen formulazioa onartzea, Batzar Nagusian aurkezteko.
- Hitzarmena Ibarretas XXI enpresarekin.(Mahai gainean)
- Talakoetxea 19B salmentarako baldintza pleguak onartu.
- Hitzarmena Ibarretas XXI enpresarekin.

2021. Urtea

- 2021. urteko aurrekontuaren onarpena.
- 2020. urteko kontuen formulazioaren onarpena.
- Idazkari ordearen izendapena.
- 2022. urterako aurrekontua.
- “Nafarroako Rural Kutxa-Caja Rural de Navarra” entitatean kontua irekitzea erabaki.

2022. urtea

- 2021. urteko kontuak formulatzea, Batzar Nagusiak onartzeko.
- Next Generation funtsen kudeaketa egiteko hitzarmena sinatzea onartzea.

2023. urtea

- Arkitektoaren eszedentzia eskaria ebatzea.
- 2022. urteko kontuen formulazioa.
- Kontseilari delegatua izendatzea.
- Kontseilari delegatuaren izendapena zuzentzea.
- San Martin 9 eta 11ko Babes Ofizialeko etxebizitzaren salmenta eskriturak sinatzeko ahalmenak ematea.

Batzar orokorraren erabakiak**2017.urtea**

– 2016. urteko kontuen eta ikuskaritza ekonomikoaren onarpena.

2018. urtea

- 2017. urteko kontuen onarpena.
- Iker Aguado Buil jaunaren 2015. Urteko Administrazio Kontseiluko kide izendapena egitearen zuzenketa egitea.
- Aritz Abaroa Cantuariense jauna eta Sergio Ugalde Zabala jaunaren 2016. urteko Administrazio Kontseiluko kide izendapenaren zuzenketa egitea.
- Sergio Ugalde Zabala jaunak Berualan daukan ordezkariari uko egitea.

2019.urtea

- Jose Mari Larrozea Etxebarria jauna Administrazio Kontseiluko kide izendatzea.
- Administrazio Kontseiluko kideak izendatzea.
- 2019ko uztailaren 2ko “Administrazio Kontseiluko kideak izendatzea” erabakian dagoen egitezko akatsa zuzentzea.
- 2018. urteko kontuak onartzea.

2020.urtea

- 2019 ekitaldiko kontuak onartzea.
- San Martin kaleko 9 eta 11ko 36 Babes Ofizialeko etxebizitzaren salmenta prozeduraren hasierako onarpena eta esleipen oinarriak onartzea.

2021.urtea

- 2020. urteko kontuak onartzea.
- Kontseilari delegatuari Babes Ofizialeko etxebizitzaren esleipen prozeduraren fase desberdinen kudeaketaren delegazioa.
- Berualako langileek Bermeoko Udalaren langileen jokabide kodeari atxikitzea onartzea.

2022. urtea

- 2021. urteko kontuen onarpena.

2023. urtea

- 2022. urteko kontuen onarpena.
- Administrazio Kontseiluko kideen izendapena.




** Azpimarratuta sozietatearen funtzionamendua bermatzeko erabakiez at hartutako erabakiak*

Laugarrena.- Alkateak Beruala S.A. desegiteko legezko xedapenei buruzko eta jarraitu beharreko prozedurari buruzko txostena eskatu du.

2. Oinarri juridikoak

2.1. Aplikagarria den araudia_

- 1955eko Dekretua, ekainaren 17koa, Toki Korporazioetako Zerbitzuen Araudia onetsi duena.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubideari buruz Indarrean dauden Lege Xedapenen testu bategina onetsi duena.
- 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena.
- 1990eko maiatzaren 31n onartutako Bermeoko Urigintz-Barriztatze Alkatea, S.A.ren (Berualaren) estatutuak
- 57/2003 Legea, abenduaren 16koa, toki-gobernua eguneratzeari buruzkoa.
- 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duena.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren arrazionalizatzeari eta jasangarritasunari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari



buruzkoa.

- Apirilaren 7ko 2/2016 Euskadiko Toki erakundeei buruzko legea.

2.2. Azterketa juridikoa

Sozietate Anonimoei buruz eta aplikagarria den araudiari buruz

Administrazio Publikoek zerbitzuak emateko era ezberdinak dituzte: zuzenean emanda edo zeharka emanda. Zerbitzuak zuzenean emateko orduan, aukerarik jasangarri eta efizientearena bilatu behar da.

Zerbitzuak eman daitezke erakunde instrumentalen bitartez, modu deszentralizatuan, aukerarik jasangarri eta efizienteena bada. Aukera hori XIX. mendearen bukaeratik izan dute administrazioek eta tresna hauek historikoki erabili izan dira prozedura administratiboak ekiditeko asmoz.

Aipatzekoa da deszentralizazioaren eta efikaziaren printzipioak konstituzioaren 103. artikuluan jasotzen direla.

Zentzu honetan, Toki Erakundeen Oinarriak arautzen dituen Legearen 85.2 artikulua daukagu. Artikulu horrek dio:

2. Los servicios públicos de competencia local habrán de gestionarse de la forma más sostenible y eficiente de entre las enumeradas a continuación:

A) Gestión directa:

a) Gestión por la propia Entidad Local.

b) Organismo autónomo local.

c) Entidad pública empresarial local.

d) Sociedad mercantil local, cuyo capital social sea de titularidad pública.



2013. urtean toki erakundeen araudian aldaketa garrantzitsuak jaso ziren, besteak beste, administrazio publikoa **arrazionalizatzeko eta jasangarriagoa** egiteko asmoz.

Urte horretan 85. artikuluari hurrengo gehitu zitzaion:

*Solo podrá hacerse uso de las formas previstas en las letras c) y d) cuando quede acreditado mediante **memoria justificativa** elaborada al efecto que resultan más sostenibles y eficientes que las formas dispuestas en las letras a) y b), para lo que se deberán tener en cuenta los criterios de **rentabilidad económica y recuperación de la inversión**. Además, deberá constar en el expediente la memoria justificativa del asesoramiento recibido que se elevará al Pleno para su aprobación en donde se incluirán los informes sobre el coste del servicio, así como, el apoyo técnico recibido, que deberán ser publicitados. A estos efectos, se recabará informe del interventor local quien valorará la sostenibilidad financiera de las propuestas planteadas, de conformidad con lo previsto en el artículo 4 de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera.*

Efikazia kontrolatzeko eta etengabean gainbegiratzeko, subsidiarioki, 40/2015 Legeak 85. artikuluan estatu mailako sektore publiko instituzionalaren kasurako adierazitakoa kontuan izan beharko litzateke. Hain justu ere, 85. Artikuluak 3. atalean zera dio:

3. Todas las entidades integrantes del sector público institucional estatal están sujetas desde su creación hasta su extinción a la supervisión continua del Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas, a través de la Intervención General de la Administración del Estado, que vigilará la concurrencia de los requisitos previstos en esta Ley. En particular verificará, al menos, lo siguiente:

a) La subsistencia de las circunstancias que justificaron su creación.

b) Su sostenibilidad financiera.



c) La concurrencia de la causa de disolución prevista en esta ley referida al incumplimiento de los fines que justificaron su creación o que su subsistencia no resulte el medio más idóneo para lograrlos.

Las actuaciones de planificación, ejecución y evaluación correspondientes a la supervisión continua se determinarán reglamentariamente.

4. Las actuaciones de control de eficacia y supervisión continua tomarán en consideración:

a) La información económico financiera disponible.

b) El suministro de información por parte de los organismos públicos y entidades sometidas al Sistema de control de eficacia y supervisión continua.

c) Las propuestas de las inspecciones de los servicios de los departamentos ministeriales.

Los resultados de la evaluación efectuada tanto por el Ministerio de Adscripción como por el Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas se plasmarán en un informe sujeto a procedimiento contradictorio que, según las conclusiones que se hayan obtenido, podrá contener recomendaciones de mejora o una propuesta de transformación o supresión del organismo público o entidad.

Gainera, ezinbestekoa da administrazioak **jarraitu beharreko printzipioak** zeintzuk diren gogoraraztea:

1. Las Administraciones Públicas sirven con objetividad los intereses generales y actúan de acuerdo con los **principios de eficacia, jerarquía, descentralización, desconcentración y coordinación, con sometimiento pleno a la Constitución, a la Ley y al Derecho.**

Deberán respetar en su **actuación y relaciones** los siguientes principios:

a) Servicio efectivo a los ciudadanos.



- b) *Simplicidad, claridad y proximidad a los ciudadanos.*
- c) *Participación, objetividad y transparencia de la actuación administrativa.*
- d) *Racionalización y agilidad de los procedimientos administrativos y de las actividades materiales de gestión.*
- e) *Buena fe, confianza legítima y lealtad institucional.*
- f) *Responsabilidad por la gestión pública.***
- g) *Planificación y dirección por objetivos y control de la gestión y evaluación de los resultados de las políticas públicas.*
- h) *Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados.***
- i) ***Economía, suficiencia y adecuación estricta de los medios a los fines institucionales.***
- j) *Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.***
- k) *Cooperación, colaboración y coordinación entre las Administraciones Públicas.*

Hortaz, nahitaezkoa da udalaren Sozietate Anonimoaren **efikazia kontrolatzea** eta edozein erabaki hartzerakoan printzipio horiek kontuan izatea.

Horretaz gain, Toki Administrazioaren arrazionalizatzeari eta jasangarritasunari buruzko 27/2013 Legeak, Toki Erakundeen Oinarriak onartzen dituen Legean 9. Xedapen Gehigarria barneratu zuen, non hitzez hitz dioen:

Disposición adicional novena. Redimensionamiento del sector público local.

1. Las Entidades Locales del artículo 3.1 de esta Ley y los organismos autónomos de ellas dependientes no podrán adquirir, constituir o participar en la constitución, directa o indirectamente, de nuevos organismos, entidades, sociedades, consorcios, fundaciones, unidades y demás entes durante el tiempo de vigencia de su plan económico-financiero o de su plan de ajuste.



Las entidades mencionadas en el párrafo anterior durante el tiempo de vigencia de su plan económico-financiero o de su plan de ajuste no podrán realizar aportaciones patrimoniales ni suscribir ampliaciones de capital de entidades públicas empresariales o de sociedades mercantiles locales que tengan necesidades de financiación. Excepcionalmente las Entidades Locales podrán realizar las citadas aportaciones patrimoniales si, en el ejercicio presupuestario inmediato anterior, hubieren cumplido con los objetivos de estabilidad presupuestaria y deuda pública y su período medio de pago a proveedores no supere en más de treinta días el plazo máximo previsto en la normativa de morosidad.

2. Aquellas entidades que a la entrada en vigor de la presente Ley desarrollen actividades económicas, estén adscritas a efectos del Sistema Europeo de Cuentas a cualesquiera de las Entidades Locales del artículo 3.1 de esta Ley o de sus organismos autónomos, y se encuentren en desequilibrio financiero, dispondrán del plazo de dos meses desde la entrada en vigor de esta Ley para aprobar, previo informe del órgano interventor de la Entidad Local, un plan de corrección de dicho desequilibrio. A estos efectos, y como parte del mencionado plan de corrección, la Entidad Local de la que dependa podrá realizar aportaciones patrimoniales o suscribir ampliaciones de capital de sus entidades solo si, en el ejercicio presupuestario inmediato anterior, esa Entidad Local hubiere cumplido con los objetivos de estabilidad presupuestaria y deuda pública y su período medio de pago a proveedores no supere en más de treinta días el plazo máximo previsto en la normativa de morosidad.

Si esta corrección no se cumpliera a 31 diciembre de 2014, la Entidad Local en el plazo máximo de los seis meses siguientes a contar desde la aprobación de las cuentas anuales o de la liquidación del presupuesto del ejercicio 2014 de la entidad, según proceda, disolverá cada una de las entidades que continúe en situación de desequilibrio. De no hacerlo, dichas entidades quedarán automáticamente disueltas el 1 de diciembre de 2015.

Los plazos citados en el párrafo anterior de este apartado 2 se ampliarán hasta el 31 de diciembre de 2015 y el 1 de diciembre de 2016,



respectivamente, cuando las entidades en desequilibrio estén prestando alguno de los siguientes servicios esenciales: abastecimiento domiciliario y depuración de aguas, recogida, tratamiento y aprovechamiento de residuos, y transporte público de viajeros.

Esta situación de desequilibrio financiero se referirá, para los entes que tengan la consideración de Administración pública a efectos del Sistema Europeo de Cuentas, a su necesidad de financiación en términos del Sistema Europeo de Cuentas, mientras que para los demás entes se entenderá como la situación de desequilibrio financiero manifestada en la existencia de resultados negativos de explotación en dos ejercicios contables consecutivos.

3. Los organismos, entidades, sociedades, consorcios, fundaciones, unidades y demás entes que estén adscritos, vinculados o sean dependientes, a efectos del Sistema Europeo de Cuentas, a cualquiera de las Entidades Locales del artículo 3.1 de esta Ley o de sus organismos autónomos, no podrán constituir, participar en la constitución ni adquirir nuevos entes de cualquier tipología, independientemente de su clasificación sectorial en términos de contabilidad nacional.

4. Aquellos organismos, entidades, sociedades, consorcios, fundaciones, unidades y demás entes que a la entrada en vigor de esta Ley no estén en situación de superávit, equilibrio o resultados positivos de explotación, estuvieran controlados exclusivamente por unidades adscritas, vinculadas o dependientes, a efectos del Sistema Europeo de Cuentas, de cualquiera de las Entidades Locales del artículo 3.1 de esta Ley, o de sus organismos autónomos deberán estar adscritos, vinculados o dependientes directamente a las Entidades Locales del artículo 3.1 de esta Ley, o bien ser disueltos, en ambos casos, en el plazo de tres meses desde la entrada en vigor de esta Ley e iniciar, si se disuelve, el proceso de liquidación en el plazo de tres meses a contar desde la fecha de disolución. De no hacerlo, dichas entidades quedarán automáticamente disueltas transcurridos seis meses desde la entrada en vigor de esta Ley.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20230904017
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 23/10/2023 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/11/2023 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/11/2023 08:56:42		Fecha: 01/11/2023 Lekua: Bermeon Erregistro unidaatea: Erregistro nagusia



En el caso de que aquel control no se ejerza con carácter exclusivo las citadas unidades dependientes deberán proceder a la transmisión de su participación en el plazo de tres meses desde la entrada en vigor de esta Ley.

Los plazos para el cambio de adscripción, vinculación o dependencia, la disolución y para proceder a la transmisión de la correspondiente participación citados en los dos párrafos anteriores de este apartado 4 se ampliarán en un año más, cuando las entidades en desequilibrio estén prestando alguno de los siguientes servicios esenciales: abastecimiento domiciliario y depuración de aguas, recogida, tratamiento y aprovechamiento de residuos, y transporte público de viajeros.

Horretaz gain, 85 ter artikulua jaso zen 7/1985 Legean¹, zeinak dioen:

Artículo 85 ter.

1. Las sociedades mercantiles locales se registrarán íntegramente, cualquiera que sea su forma jurídica, por el ordenamiento jurídico privado, salvo las materias en que les sea de aplicación la normativa presupuestaria, contable, de control financiero, de control de eficacia y contratación, y sin perjuicio de lo señalado en el apartado siguiente de este artículo.

2. La sociedad deberá adoptar una de las formas previstas en el texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, y en la escritura de constitución constará el capital que deberá ser aportado por las Administraciones Públicas o por las entidades del sector público dependientes de las mismas a las que corresponda su titularidad.

3. Los estatutos determinarán la forma de designación y el funcionamiento de la Junta General y del Consejo de Administración, así como los máximos órganos de dirección de las mismas.

¹ Abenduaren 27ko 27/2013 Toki Administrazioaren arrazionalizatzeari eta jasangarritasunari buruzko Legeak txertatu zuen artikulua.



Aipatutako artikuluetatik ondorioztatzen da erakunde instrumental edo instituzional horien erregulazioa Administrazio Zuzenbideko eta Zuzenbide Pribatuko arauetan jasotzen dela.

Hala, lehenengo artean, aipatzekoak dira hurrengoak: apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Araubidearen Testu Bateginaren 103. artikulua, zeinetan esaten den: *“2. Cuando las pérdidas excedan de la mitad del capital social, será obligatoria la disolución de la Sociedad, y la Corporación resolverá sobre la continuidad y forma de prestación del servicio”* eta 1955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamenduaren 89-94 artikulua.

Baina, bestalde, badu erregulazio pribatu bat, funtsean Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuan jasotzen dena.

Bermeoko Urigintz-Barriztate Alkartea, S.A. desegiteari buruz

Toki Araubidearen arloan indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 103.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, sozietatea desegiteko nahitazko arrazoia da galerak kapital sozialaren erdia baino handiagoak direnean. Baina horretaz gain, toki-araubideari buruzko araudiak ordenamendu juridiko pribatura jotzen du merkataritza-sozietateak desegiteko, eta Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 360. artikulua eta hurrengoek, merkataritza-arauak betetzera behartzen dute, kasu jakin batzuetan desegitea nahitazkoa izango litzatekeelako, eta, bestetik, toki-erakundeak, bazkide bakarra den aldetik, desegitea erabaki dezakeelako.

Izan ere, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 363. artikuluan hurrengoak jaso da:



1. *La sociedad de capital deberá disolverse:*

a) *Por el cese en el ejercicio de la actividad o actividades que constituyan el objeto social. En particular, se entenderá que se ha producido el cese tras un período de inactividad superior a un año.*

b) *Por la conclusión de la empresa que constituya su objeto.*

c) *Por la imposibilidad manifiesta de conseguir el fin social.*

d) *Por la paralización de los órganos sociales de modo que resulte imposible su funcionamiento.*

e) *Por pérdidas que dejen reducido el patrimonio neto a una cantidad inferior a la mitad del capital social, a no ser que éste se aumente o se reduzca en la medida suficiente, y siempre que no sea procedente solicitar la declaración de concurso.*

f) *Por reducción del capital social por debajo del mínimo legal, que no sea consecuencia del cumplimiento de una ley.*

g) *Porque el valor nominal de las participaciones sociales sin voto o de las acciones sin voto excediera de la mitad del capital social desembolsado y no se restableciera la proporción en el plazo de dos años.*

h) *Por cualquier otra causa establecida en los estatutos.*

Izan ere, ezinbestekoa da kontuan izatea Bermeoko Udalaren Bermeoko Urigintz-Barriztatze Alkartea, Sozietate Anonimoa (Beruala) desagitea lege betebeharra dela galerak kapital sozialaren erdia baino handiagoak direnean, jada helburu soziala osatzen duen jarduera bertan behera uzten denean edota blokeo egoera bat dagoenean. Azken honen inguruan, gogoratu behar da Administrazio kontseiluaren osiera dela eta blokeo egoerak egon izan direla eta etorkizunean ere egon daitezkeela, adibidez, 2018ko otsailaren 9ko administrazio kontseiluan aurrekontua onartzerakoan ikusi zen moduan.



Horretaz gain, kontuan izan behar da 2017tik Beruola S.A.ren administrazio kontseiluak eta batzar nagusiak hartutako erabakiak² hauexek izan direla:

Administrazio kontseiluaren erabakiak:

- Gazteen emantzipaziorako diru-laguntzak ematea
- Next Generation funtsen kudeaketa egiteko Bermeoko Udalarekin hitzarmena sinatzea onartzea.
- Epaitegitik kanpo akordiora heltzeko hitzarmena onartzea Ibarretas XXI enpresarekin.
- Talakoetxea 19B salmentarako baldintza pleguak onartu.

Batzar nagusiaren erabakia:

- San Martin kaleko 9 eta 11ko 36 Babes Ofizialeko etxebizitzaren salmenta prozeduraren hasierako onarpena eta esleipen oinarriak onartzea.

Gainera, Bermeoko Udalaren auto-organizazioaren ahalmenaren barruan dago desegiteko erabakia. Izan ere, Bermeoko Udalak sozietatea eratzerako autonomia izan duen moduan, autonomia izango du desegiteko.

Ildo berean, estatutuen 30. artikuluko 1. atalean hurrengoa jaso da:

30. artikulua.

1. Honako arrazoen bategaitik desegingo da soziedadea:

- a) Estatutuek finkatu daben denborea igaro dalako.**
- b) Bere xede soziala dan enpresea desegin dalako edota ezinezkoa dalako soziedadea garatzea edota bere organoak gelditu egin diralako eta ezinezkoa dalako bere funtzionamendua.**
- c) Soziedadea fusionatu edota banandu egin dalako.**
- d) Kapital soziala erdira edo handik beherako ondarrera ekarri daben galtzeak egon diralako, neurri egokian handitu edo txikitu ez bada.**
- e) Legezko gitxienetik behera gitxitu dalako kapital soziala.**

² Kontuan izan behar da puntu honetan jasotakoez gain ohiko funtzionamendurekin jarraitzeko hainbat erabaki hartu izan direla, hirugarren aurrekarian ageri den moduan.



f) *Soziedade Anonimoen Legearen testu bateratua onartzen dauan, abenduaren 22ko 1549/89 Legegintzako Errege Dekretuaren 103. artikulua ezarritakoaren arabera hartu daualako erabagia Batzar Nagusiak.*

g) *Estatutuetan ezarritako beste edozein arrazoigaitik.*

Jarraitu beharreko prozedurari buruz

Sozietate Anonimoa desegiteko erabakiak berarekin dakar administrazio-espeditentia bideratu beharra eta, ondoren, merkataritza arloko espeditentia bideratu beharra. Eta hori kontuan hartuta, Udalak erabaki behar du, edozelan ere, zerbitzua nola ematen jarraituko den. Hala agintzen da 7/1985 Legearen 85. artikuluan eta 22.2.f artikuluekin bat. Horrek eragina izango du langileen egoeran, hau da, edo udalean jarraitzean, edo kaleratzeak burutzean.

Espediente administratiboari buruz

Sozietate desegiteko prozedura ez da zehatz-mehatz jaso estatutuetan, dena den, gehiengo doktrinak defendatzen du Sozietatea **sortzeko bideratu zen prozedura bera** jarraitu behar dela desegiteko eta ezinbestekoa dela 7/1985 Legearen 49. artikuluan zehatutako prozedura jarraitzea.

Hori kontuan izanik, administrazio espeditentia hurrengo izapideak eta agiriak izan behar ditu:

Agiria	Oharrak	Beruala/ Udal saila
Berualako zuzendariaren txostena	Administrazioak errespetatu behar dituen printzipioen betetze mailaren inguruan (efikazia, ekonomia prozesala, efizientzia,	Beruala S.A. zuzendariak



	<p>plangintza, emaitzen ebaluazioa, eta kudeaketaren kontrola).</p> <p>Galerak kapital sozialaren erdia baino handiagoak badira.</p> <p>Sozietatearen helburua betetzen bada.</p> <p>Eskubide zein betebeharren zerrenda egin behar da (langileria, ondarea, kontratazioa, kitapenak, epaiak).</p>	
Arlo ekonomiko-finantziario-kontablearen azterketa	<p>Efizientzia eta ekonomia prozesala printzipioen arabera egokia den desegitea.</p> <p>Galerak kapital sozialaren erdia baino handiagoak bada.</p> <p>Jasangarritasuna eta egonkortasuna aztertu behar da.</p> <p>Desegitearen eragina eta baldintzak aztertu behar dira (aurrekontuan aldaketak, kontu orokorra onartzea, eta abar)</p>	Kontuhartzatzailetza
Diruzaintzan izango duen eraginaren azterketa	<p>Efizientzia printzipioen arabera egokia den disoluzioa.</p> <p>Diru-bilketan eta ordainketak egitean izango duen eragina jasoko da.</p>	Diruzaintza
Ondarearen egoeraren	Ondarea integratzekotan eragina	Idazkaritza



azterketa dela eta desegitea	eta egin beharrekoa zehaztu behar da.	saila
Kontratazioaren egoeraren azterketa eta desegitea dela eta	Kontratazio subrogatzean, eragina eta kontratazioarekin egin beharrekoa zehaztu behar da	Idazkaritza Saila
Langileriaren egoera aztertzea	Udalean izango duen eragina jasoko da. Langileen baldintzen inguruan ordezkari sindikalarekin kontsultatu beharko da	Langileria Saila
Langileen lan arriskuen inguruko azterketa	Langileria integratzekotan, Udalean izango duen eragina jasoko da. Langileen baldintzen inguruan ordezkari sindikalarekin kontsultatu beharko da	Prebentzio teknikaria
Udal organoetan integrazioa egitearen ondorioei buruz (hala badagokio)	Informazio batzordeetan, negoziazio mahaian eta bestelako udal organoetan izango duen eragina aztertuko da.	Idazkaritza saila
Errenta sailean izango duen eraginaren azterketa	Prezio publikoak eta tasak integratzekotan horren eragina eta zelan egin beharko litzatekeen zehaztu behar da.	Errenta saila
Antolaketa aldetik integrazioa egitearen aukerei buruz	Efikazia, efizientzia ekonomia prozesala eta bikoizketei buruzko printzipioen arabera egokia den desegitea.	ATB Saila



	Desegitea gauzatzekotan horren eragina eta nola egin daiteken zehaztuko da. Besteak beste, erregistro eta espediente elektronikoa integratzekotan horren eragina aztertuko da	
Erabaki proposamena egitea		Idazkaritza saila
Idazkariaren txostena	128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikulua araber	Idazkari nagusia
Erakunde eta Kontu Batzorde bereziaren diktamena		Erakunde eta Kontu Batzorde bereziaren koordinatzailea
Osoko Bilkuraren erabakia ondorio guztiak zehaztuz eta eragina noiztik izango duen zehaztuz	Gehiengo osoz	Politikoki
Informazio publikoa erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko	30 laneguneko epean BAOn, tabloian eta webgunean	Idazkaritza saila
Erreklamazio eta iradokizunak erantzutea (hala badagokio)		Idazkaritza saila
Informazio batzordeko irizpena, hala		Politikoki



badagokio		
Osoko bilkuraren behin betiko erabakia		Politikoki
Behin betiko erabakiaren argitalpena	BAOn, tabloian eta webgunean	Idazkaritza saila
Komunikazioa beste erakunde batzuei	Eusko Jaurlaritzan, Bizkaiko Foru Aldundian, INEn eta Gizarte Segurantzari berri emango da	Idazkaritza saila

Prozedura merkantilari buruz

Kapital Sozietateen Legearen testuategia onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 160.h eta 368 artikuluen arabera, merkataritzako sozietatea desagiteko, Batzar Orokorraren erabakia beharko da, estatutuak aldatzeko ezarritako betekizunekin, eta desagitea eragin duen arrazoia adierazita.

Izan ere, kontuan izan behar da administratzaileek betebeharra daukatela batzar nagusia deitzeko legez edo estatutuetan ezarritako arrazoiren bat ematen bada. Kapital Sozietateen Legearen testuategia onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 365. artikulua zera dio:

“Artículo 365. Deber de convocatoria.

1. Cuando concurra causa legal o estatutaria, los administradores deberán convocar la junta general en el plazo de dos meses para que adopte el acuerdo de disolución. Cualquier socio podrá solicitar de los administradores la convocatoria si, a su juicio, concurriera causa de disolución.



2. La junta general podrá adoptar el acuerdo de disolución o, si constare en el orden del día, aquél o aquéllos que sean necesarios para la remoción de la causa.

3. Los administradores no estarán obligados a convocar junta general para que adopte el acuerdo de disolución cuando hubieran solicitado en debida forma la declaración de concurso de la sociedad o comunicado al juzgado competente la existencia de negociaciones con los acreedores para alcanzar un plan de reestructuración del activo, del pasivo o de ambos. La convocatoria de la junta procederá de inmediato en tanto dejen de estar vigentes los efectos de esa comunicación.”

Batzar nagusiak erabakia hartu ondoren likidazio-aldia irekiko da. Erabakia Merkataritzako Erregistroan inskribatuko da; erregistratzaileak ofizioz, modu telematikoan eta kostu gehigarririk gabe igorriko du desegitearen inskripzioa Merkataritzako Erregistroaren Aldizkari Ofizialera, argitara dadin. Hori guztia Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren. 369 eta 371. artikulua eta hurrengoak aintzat hartuz.

Desegindako sozietateak bere nortasun juridikoari eutsiko dio likidazioa egiten den bitartean; denbora horretan, izendapenari "likidazioan" esamoldea gehitu beharko dio (371.2 TRLSC).

Likidazio-aldia irekitzearekin batera, administratzaileek beren kargua utziko dute, eta ordezkartza-ahalordea azkenduko da; hala ere, eskatuz gero, likidazio-eragiketak egiteko laguntza eman beharko dute (374 TRLSC).

Estatutuetan ez denez kontrakorik xedatzen³, eta Batzar Nagusiak hala erabaki

³ Estatutuek 30. artikuluko bigarren atalean zera jaso dute:

“2. Kitatzaileak izendatu beharra balego, funtzino hori hartuko leukie Administrazio Kontseiluko kideek, Batzar Nagusiak besterik esaten ez badau. Kontseiluko kideen kopurua bikoitia balitz, adinez gazteena dan kontseilariak ez



ezean, sozietatea desegitean administratzaile zirenak likidatzaile bihurtuko dira (376 TRLSC). Likidatzaile bakoitzari dagokio ordezkartza-ahalordea, sozietatea likidatzeko beharrezkoak diren eragiketa guztiei dagokienez. Ondorio horietarako, judizioan agertu ahal izango dira, sozietatearen ordezkari gisa, eta transakzioak eta arbitrajeak zehaztu ahal izango dituzte, interes sozialari hala komeni zaionean (379 TRLSC).

Batzar nagusiak desegindako sozietatea bizitza aktibora itzultzea erabaki ahal izango du, baldin eta desegiteko arrazoia desagertu bada, kontabilitate-ondarea kapital soziala baino txikiagoa ez bada eta bazkideei likidazio-kuota ordaintzen hasi ez bada. Eskubide osoz desegiten bada, ezin izango da berraktibatzea erabaki (370 TRLSC).

Desegitea azkentzearen aurrekontu bat besterik ez da, eta likidazio-aldia irekitzen duen akordio bat (371 TRLSC). Likidazioaren bidez, sozietateak kredituak kobratzen ditu, bere aktiboa besterentzen du, zorrak ordaintzen ditu eta, eragiketa horiek amaitzeko, bazkideen artean (kasu honetan, udala, bazkide bakarra den aldetik) banatu beharreko behin betiko emaitza zehazten da, behin betiko azkendu baino lehen.

Likidazio-fase honi dagokionez, udal-sozietateak Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 383. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako premisak bete beharko ditu.

Likidazioa ireki eta 3 hilabeteko epean, likidatzaileek sozietatearen inbentario eta balantze bat egingo dute, sozietatea desegin den eguna aipatuz, egiteko dauden eragiketak amaituko dituzte eta sozietatea likidatzeko beharrezkoak diren beste eragiketa batzuk egingo dituzte, sozietate-kredituak jasoko dituzte eta sozietate-zorrak ordainduko dituzte (383 eta hurrengoak TRLSC).

Likidatzaileei dagokie sozietatearen kontabilitatea eramatea eta haren liburuak, dokumentazioa eta korrespondentzia zaintzea; sozietate-ondasunak

leuke hartuko kitatzaile funtzinorik.”



besterenza eta bazkideei (kasu honetan Udalari) likidazioaren egoeraren berri ematea, kasu bakoitzean eraginkorrenak diren bitartekoen bidez (385 eta hurrengoak TRLSC). Zentzu horretan, beren kargua betetzean *do/oz* edo erruz eragindako edozein kalteren erantzule izango dira bazkideen eta hartzekodunen aurrean (397 TRLSC).

Likidatzeko eragiketa guztiak amaitutakoan, likidatzaileek Batzar nagusiari aurkeztuko diote azken balantzea, eragiketa horiei buruzko txosten osoa eta ondoriozko ondarea zatitzeko proiektua, zeinaren onuradun bakarria udala izango den.

Azken buruan, likidatzaileek sozietatea azkentzeko eskritura publikoa altxatuko dute, Kapital Sozietateen Legearen testuategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 395.1 artikuluan aurreikusitako adierazpenekin. Eskritura horri likidazioaren azken balantzea eta bazkideen zerrenda erantsiko zaizkio, eta horien nortasuna eta likidazio-kuotaren balioa jasoko dira.

Azken zerearen eskritura publikoa Merkataritza Erregistroan inskribatuko da, likidazioaren azken balantzea transkribatuz, eta, horrez gain, bazkideen nortasuna (udalarena) eta legokiokeen likidazio-kuota jasoko dira, bai eta sozietateari buruzko idazpen guztien ezerezte ere. Gainera, likidatzaileek Merkataritza Erregistroan gordailutuko dituzte iraungitako sozietatearen liburuak eta agiriak (396 TRLSC).

Horretaz gain, kontuan izan behar da estatutuen 31. artikulua diola sozietatea deseginda, Bermeoko Udala, aktiboaren kargu egingo dela, aktiborik balego, eragiketa kitatzaileak burutu eta gero, eta, haren ordezkia izango dela, eragin horietarako bakarrik, eta, haren kargu eginez, erregistro-izendapenak ezeztatzen ez badira ere.

Laburbilduz, eman beharreko pausoak hauexek dira:



Sinadurea eta data



Agiria	Oharrak	Beruala/ Udal saila
Batzar nagusiaren desegiteko erabakia	Behin osoko bilkurak behin betiko erabakia hartuta. Likidatzaile konkretuak izendatu ezean, administratzaileak izango dira. Gehiengo soila beharko da.	Idazkaritza saila
Erabakia Merkataritza erregistroan inskribatzea		Idazkaritza saila
Likidazio aldia zabaltzea	Nortasun juridikoa mantenduko da eta Beruala S.A.ri "likidazioan" esamoldea gehituko zaio. Ordezkaritza-ahalordea azkenduko da.	Likidatzaile ak (Administratzaileak edo likidatzaile moduan izendatuta koak)
Batzar nagusiari aurkeztea azken balantzea, txostena eta ondarea banatzeko proiektua		Likidatzaile ak
Sozietatea desegiteko eskritura publikoa altzatzea		Likidatzaile ak
Eskritura Merkataritza Erregistroan		Idazkaritza saila



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000DCB5100M5P9J4Q3D6X8

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 23/10/2023
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/11/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/11/2023 08:56:42

DOCUMENTO: 20230904017

Data: 01/11/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



inskribatzea		
--------------	--	--

Eskumena

Administrazio espedientearen inguruan, **Osoko Bilkurak, gehiengo soilez**, erabaki beharko du Bermeoko Udalaren Bermeoko Urigintz-Barriztatze Alkartea, Sozietate Anonimoa desegitea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikuluan (*sensu contrario*) eta Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 364. artikuluan (LHBLTB) aurreikusitakoaren arabera.


Osoko Bilkurak edozein erabaki hartu baino lehen, **Erakunde eta Kontu batzorde berezian** gaia eztabaidatu eta **irizpena** eman beharko da, hala agintzen baita, bai apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1.c) artikuluan, bai azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82., 123. eta 126. artikuluetan, besteak beste.

Merkataritzako espedientearen inguruan, eskumena **Batzar nagusiarena** da, gehiengo soilez, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 364. artikuluan (LHBLTB) aurreikusitakoaren arabera.

3. Ondorioak

Aurretik azaldutako guztia kontuan hartuz, hurrengo laburbildu daiteke:

Lehena.- Bermeoko Udalak Bermeoko Urigintz-Barriztatze Alkartea, Sozietate Anonimoa (Beruala, S.A.) **desegiteko ahalmena dauka**, Bermeoko Udalaren autonomia eta auto-antolaketarako ahalmenaren arabera. Are gehiago, ahalmena ez ezik, **betebeharra ere** dauka, hurrengo kasuetan:



1. Administrazioak errespetatu behar dituen **printzipioen** arabera (arrazionalizazioa, erantzukizuna, efikazia, ekonomia, efizientzia, plangintza, emaitzen ebaluazioa eta kudeaketaren kontrola) **egokiagoa denean** desegitea bideratzea.

2. **Galerak** kapital sozialaren erdia baino handiagoak direnean, **helburu soziala osatzen duen jarduera bertan behera uzten denean** edota sozietatearen **helburua lortzeko ezintasun** nabarmena dagoenean.

Bigarrena.- Edozein kasutan, aurreko puntuan jasotako kasuetan ez gaudela justifikatzen bada txostenean jasotako tramiteak burutu ostean, Bermeoko Udalaren Bermeoko Urigintz-Barriztatze Alkartea, Sozietate Anonimoa (Beruala, S.A.) **efikaza dela kontrolatu** behar da urtero; eta kontrol horietatik ondorioztatzen bada ez dela efikaza, **disolbatzeko espediente administratiboa eta merkataritza arlokoa** izapidetu behar da.

Hirugarrena.- Nolanahi ere, Beruala S.Ako administrazio kontseiluak eta batzar nagusiak hartutako erabakiak ikusita, **estatutuetan jasotako helburu soziala osatzen duten jarduerak ez daude eguneratuta** gaur egun Beruala, S.Ak betetzen dituen funtzioetara, ezta ematen dituen zerbitzuetara.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Dena den, **Osoko Bilkurak eta Batzar Nagusiak egoki deritzena** erabakiko dute.

Bermeon, orri oinean zehaztutako datan

Jurdana Uriarte Lejarraga,

Idazkari nagusia





Txostena jaso dut,

Alkatea

Nadia NemeH Shomaly



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000DCB5100M5P9J4Q3D6X8

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
23/10/2023
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/11/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/11/2023
08:56:42

DOCUMENTO: 20230904017

Fecha: 01/11/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

